

NAFARROAKO HERRIZ HERRI TXAPELKETA 2024

Uztailaren 20an hasiera emanen Nafarroako 2024ko Herriz Herri Txapelketari. Aurten ere bi maila jokatuko dira: Heduen eta gazteena.

MAILA ABSOLUTUA (Helduak)

PROBA KONBINATU BAKOITZEAN EGIN BEHARREKO LANAK

Txapelketa mistoa izanen da eta bi proba konbinatu desberdinetan lehiatu beharko dute taldeek:

* Lehen proba konbinatua

3 txanda jarraian:

Modalitatea	Partaide kopurua	Lana gizonezkoetan	Lana emakumezkoetan
LOKOTX BILTZEA	1	15 lokotx (lehen txandan bildu, bigarrenean jarri eta hirugarrenean bildu)	15 lokotx (lehen txandan bildu, bigarrenean jarri eta hirugarrenean bildu)
ZAKUA	2	40 kiloko zakuarekin kirolari bakoitzak 2 itzuli eman plazari (160 m)	30 kiloko zakuarekin kirolari bakoitzak 2 itzuli eman plazari (160 m)
AIZKORA	1	Metroko enbor bat moztu	Oineko enbor bat moztu
KORRIKA (mistoa)	2	Guztira 6 itzuli eman plazari (480 m) / Kirolari bakoitzak 3 itzuli	
ARPANA (mistoa)	2 (G+E)	Etzanda jarritako metroko enborrari 4 korte	

- Emakumezkoen parte hartzea: Jardunaldi bakoitzean gutxienez bi kirolari emakumezkoak izan behar dute (arpanlaria + beste bat nahi den modalitatean).

* Bigarren proba konbinatua (bi kirol)

Modalitatea	Partaide kopurua	Lana gizonezkoetan	Lana emakumezkoetan
TXINGA-ERAMATEA	2 (G+E)	50 kiloko txingekin 10 plaza ahalik eta azkarren	25 kiloko txingekin 10 plaza ahalik eta azkarren
INGUDE ALTXATZEA	2 (G+E)	18 kiloko ingudearekin ahalik eta altxaldi gehien minutu batean	9 kiloko ingudearekin ahalik eta altxaldi gehien minutu batean

- Talde bakoitzak 4 probak egin beharko ditu (Modalitate bakoitzean gizonezko batek eta emakumezko batek parte hartu beharko du talde bakoitzetik).

TALDE PARTE HARTZAILEAK (7 talde): Arraioz, Basaburua, Berriozar, Etxarri Aranatz, Irurita, Ultzamaldea, Txantrea

EGUTEGIA:

EGUNA	ORDUA	HERRIA	TALDE PARTE HARTZAILEAK jardunaldi bakoitzean
2024-07-20	18:00	Bera (Toki-Ona)	Arraioz, Etxarri Aranatz, Txantrea, Ultzamaldea
2024-07-27	17:00	Elizondo (Iriarte frontoia)	Arraioz, Basaburua, Irurita, Berriozar
2024-08-03	Arratsaldez	Etxarri Aranatz (frontoia)	Basaburua, Berriozar, Etxarri Aranatz
2024-08-10	17:00	Antsoain (IDAKI)	Irurita, Txantrea, Ultzamaldea
Finala 2024-08-18	19:00	Burlata (Ezkaabazabal)	Finalera sailkatzen diren lau taldeak

JOKATZEKO SISTEMA

* Lehen proba konbinatua

Lau jardunaldi eta finala jokatuko dira. Talde bakoitzak bi jardunaldi jokatuko ditu. Jardunalditako 4 talde onenak pasatuko dira finalera.

Finalera pasako diren taldeak erabakitzeke, talde bakoitzaren denborak batuko dira.

* Bigarren proba konbinatua (bi kirol)

Lau jardunaldi eta finala jokatuko dira. Talde bakoitzak bi jardunaldi jokatuko ditu.

Jardunalditako 4 talde onenak pasatuko dira finalera.

21 URTEZ AZPIKOA (GAZTEAK)

2004tik 2009ra (biak barne) jaiotako kirolariz osaturiko taldeak izanen dira.

Txapelketa mistoa izanen da eta proba konbinatu bakarrean lehiatuko dira taldeak.

EGIN BEHARREKO LANAK

3 txanda jarraian:

Modalitatea	Parte hartzaile kopurua	Lana
LOKOTX BILTZEA	1	12 lokotx (lehen txandan bildu, bigarreanean jarri eta hirugarreanean bildu)
ZAKUA	2	20 kiloko zakuarekin kirolari bakoitzak 2 itzuli eman plazari (kirolariak buelta aldiero aldatuko dira).
TXINGAK	1	25 kiloko txingekin 6 plaza (18,75 metroko zatian hiru joan-etorri)
KORRIKA	2	6 tzuli eman plazari bi kirolariren artean (3+3)
ARPANA (mistoa)	2 (G+E)	Etzanda jarritako metroko enberrari 3 korte

Emakumezkoen parte hartzea: Jardunaldi bakoitzean gutxienez bi kirolari emakumezkoak izan behar dute (arpanlaria + beste bat nahi den modalitatean).

TALDE PARTE HARTZAILEAK (3 talde): Antsoain, Basaraiga*, Berriozar

*Basaburua, Arantza eta Igantzen artean osatutako taldea.

EGUTEGIA:

EGUNA	ORDUA	HERRIA	TALDE PARTE HARTZAILEAK
2024-07-27	17:00	Elizondo (Iriarte frontoia)	Antsoain, Basaraiga, Berriozar
2024-08-10	17:00	Antsoain (IDAKI)	Antsoain, Basaraiga, Berriozar
2024-08-18	19:00	Burlata (Ezkabazabal)	Antsoain, Basaraiga, Berriozar

JOKATZEKO SISTEMA

Hiru jardunaldi jokatuko dira liga sistema bidez (puntutara).

Azken jardunaldian, puntu guztiak batu ondoren berdinketa egonez gero, talde bakoitzaren denborak batuko dira.